

1979, *Abendua*

I. BILKURA BEREZIA. Arrasaten, Politeknika Ikastegian, 1979.eko Abenduaren 20an, goizeko hamaika t'erdietan, bildu dira: L. Villasante buru, J. Haritschelhar buruorde, A. Irigoyen, E. Knörr, P. Lafitte, eta J. San Martin, J. M. Satrustegi idazkari dela.

J. L. Davant, X. Diharce, J. Hiriart-Urruty, A. Irigaray, P. Larzabal, eta L. Mitxelena jaunek ezin etorria adierazi dute. E. Larre arratsaldean dator.

Deia eginda dagoen bezala bilkura berezi honetako gai bakarra euskaltzain ohorezko eta urgazle berrien izendapena da.

J. L. Davant, J. Hiriart-Urruty eta P. Larzabalek bozketarako ahalak, J. Haritschelhari ematen dizkiote; X. Diharce eta E. Larrek, P. Lafitteri; eta L. Mitxelenak, E. Knörri.

Bilkura honetan arautegiaren 21., 22., 37., 38., eta 39. arauerako prozedura jarraituko da.

Bina euskaltzainek izkribuz egindako proposamen arrazoituak irakurri dira lehenik, eta banan-banaka bozketak eginez, jaun hauek izendatzen dira aho batez:

– Euskaltzain ohorezko: Gerardo Lopez de Gereñu Galarraga, Santiago Onaindia Baseta, Bedita Larrakoetxea Agirrezabala, Nemesio Etxaniz Aranbarri, Casto Inza Arbeo (Aita Jorge Riezu), Etienne Salaberry, Justo Garate Arriola eta Julio Caro Baroja.

– Euskaltzain urgazle: Daniel Landart, Jean Baptiste Etcharren Lohigorri, Junes Casenave-Harigile, Juan Apezetxea Perurena, Francisco Ondarra Erdozia, Federico Barrenengoa Arberas, Pedro Sancristobal Murua, Pedro Pujana Agirregabiria, Karmele Rotaetxe Amusatagi, Jose Antonio Arana Martija, Eustasio Etxezarreta Zelaia, Jose Ignacio Telletxea Idigoras, Joxe Garmendia Arruebarrena, Patxi Goenaga Mendizabal eta Jose Antonio Mujika Casares.

Besterik gabe amaitzen da bilkura berezia.

Euskaltzainburua
Luis Villasante

Idazkaria
J. M.^a Satrustegi

II. *BILKURA BEREZIA*. Arrasaten, Politeknika Ikastegian, 1979.eko Abenduaren 20an, arratsaldeko seietan, bildu dira: A. Villasante buru, J. Haritschelhar buruorde, A. Irigoyen, E. Knörr, P. Lafitte, eta Juan San Martin, J. M. Satrustegi idazkari dela.

J. L. Davant, X. Diharce, J. Hiriart-Urruty, A. Irigaray, P. Larzabal eta L. Mitxelena jaunek ezin etorria adierazi dute. E. Larre Biltzar egun guztietan egon da, baina alde egin behar izan du Aiherrara.

J. L. Davant, J. Hiriart-Urruty eta P. Larzabalek bozketarako ahalak, J. Haritschelhari ematen dizkiote; X. Diharce eta E. Larrek, P. Lafitteri; eta L. Mitxelenak, E. Knörrri.

Bilkura berezi honen xedea Euskaltzaindiaren IX. Biltzarrekiko ondorenez erabakia hartzeko da.

Eztabaidatu ondoren, honako adierazpen hau aho batez onartu da:

1. Biltzar honetara aurkeztu diren lanak, bai erabili diren gaiez eta bai duten mailaz, aurrerapide dauzka.

2. Holako iker-lanak beharrezko ikusten ditu, bereziki Euskara historian zehar erabiltzearen usadio on eta ereduak euskal idazle eta irakasleengana zabal daitezen.

3. Bide honetan barrena jorraitzeko lan talde batzuren beharra, premia eta nahia erakusten da. Horretarako batzordeak sortuko dira.

4. Bere burua eskaintzen du koordintzaile hizkuntza alorrean egiten eta eginen diren lanetarako.

Honekin bilkura berezi hau amaitzen da.

Eta jarraian Biltzar honetan, euskaltzain ez diren, txostengileei deitzen die J. L. Lizundia Idazkariordeak eta jaun andere hauek agertzen dira: Adolfo Arejita, Aita Lino Akesolo, Patxi Altuna, Miren Azkarate, Juan Antonio Letamendia, Rikardo Badiola, Patxi Goenaga eta Jose Antonio Mujika.

Euskaltzainen eta txostengileen artean solasaldi interesgarri bat sortzen da, batez ere, adierazpenaren 3. puntuari buruz. Aurrerago bilera bat egitea ikusten da Biltzar honetako lanek etengabeko segida izan dezaten.

Euskaltzainburua
Luis Villasante

Idazkaria
J. M.^a Satrustegi

* * *

BATZAR IREKIA. Arrasaten, Udal Polikiroldegian, 1979.eko Abenduaren 23an, batzar ireki bat ospatzen da, IX. Biltzarri amaiera emateko. Mahaipuruan: Arantza Akizu andereñoa, Arrasateko zinegotzia; L. Villasante, euskaltzainburua; J. Haritschelhar, buruordea J. M. Satrustegi, idazkaria; E. Knörr eta P. Lafitte euskaltzainak jartzen dira. A. Irigoyen, J. San Martin eta A. Zavala euskaltzainak; F. Artola, I. Beobide, J.

M. Iriondo, X. Kintana, I Laspiur, J. M. Lekuona, J. A. Letamendia, J. L. Lizundia, S. Onaindia, P. Uribarren eta J. J. Zearreta euskaltzain urgazleak ere bertan dira.

L. Villasante euskaltzainburuak agur bat egin ondoren, J. M. Satrustegi idazkariak Euskaltzaindiaren Biltzar honi buruzko adierazpena irakurtzen du.

Ondoren, J. L. Lizundia idazkariordeak, Abenduko batzarretan ohi den bezala, datorren urteko batzar egutegia irakurtzen du. Uztailaren azkenean edo Abuztuaren lehen egunetan, Beran, ospatuko da Euskal Jaien mendeurrena; Gernikan, Abuztuaren azken astean, Nazioarteko Euskalarien Jardunaldiak eta *Euskal Erria* aldizkariaren mendeurrena azpimarratzen ditu.

Jarrain, 20an izendaturiko euskaltzain ohorezko eta urgazle berriei izendapen agiri-diploma banatzen zaie, bertan baitira gehienak.

Eta batzar ireki honen segida bezala Euskal Herriko Bertsolari Txapelketari hasiera ematen zaio.

Euskaltzainburua
Luis Villasante

Idazkaria
J. M.^a Satrustegi